



Balorezko proposamena:

Azken urteotan badirudi jendea kutsadurak ekar ditzakeen arriskuen jakinaren gainean dagoela gero eta gehiago, eta agerian da horrek okerrera egitea saihesteko egiten hari diren ekimenak gero eta ugariagoak direla. Horretaz baliatuz, gure ideia honako hau da: app baten bidezko bizikleta alkilerra.

Erabaki hau hartu dugu, oso garrantzitsua iruditzen zaigulako ingurumena zaintzea eta proiektu hau hainbeste kutsatzen duten ibilgailuen erabilera murrizteko bide bat izan daitekeela iruditzen zaigu. Lehen esan bezala, kutsaduraren aurkako ekimenak gero eta ugariagoak dira, batez ere gazteen artean, horregatik uste dugu proiektu hau eraginkorra izan daitekeela eta aurrera egin dezakeela. Gainera, kostaldeko guneeetan, udan oso ohikoa da bizikleten erabilera, beraz, gune horietan gure App-aren erabilera ugariagoa izango litzateke.

Aplikazio honen bidez bidez eskaintzen dugun balioa, bizikleta uzteko prest dagoen eta bizikleta behar duen bi pertsonen artean komunikazioa erraztea da. App honek komunikazio erraza eta azkarra ahalbidetzen du. Gainera, prezioa haien artean adosten dute, beraz, bientzat onuragarria da trukea.

Horrez gain, gure proiektua ingelesera itzulita egongo da eta honek herrialde ezberdinen arteko komunikazioa ahalbidetuko du. Beste alde batetik, beste herrialde bateko pertsona batekin trukea egin nahi baduzu eta bere hizkuntza ez badakizu, guk kontratatutako itzultzailea erabiltzeko aukera izango duzu, betiere hizkuntza hori itzultzailean agertzen bada. Badakigu hirietan badaudela bizikleten alkilerra egiteko aukera jada, baina gure aplikazioaren bidez, prezioa adosteko aukera duzu eta gainera askoz erosoa da.

Hori alde batera utzita, 'ideia' atalean esan bezala, gero eta jende gehiago saiatzen da ingurumena zaintzen eta bizikletak ez duenez kutsatzen, ingurumena zaintzea ere ahalbidetzen du.

Gainera gero eta jende gehiago joaten da hiri handietara bizitzera, baina kontaminazioa hain handia denez, hiri askotan kotxeekin erdigunera sartzea debekatuta dago. Beraz, leku batetik bestera modu erraz eta azkarrago batean mugitzeko bizikleta oso aukera ona da, eta gure app-aren bidez, zure hiria ez den beste hiri batean bizikleta eskuragarri izatea oso erraza da.

App-aren bazkide ere egin zaitezke, eta horrela hilabetero 2,99€ ordainduz, hiri ezberdinetan bizikletarekin ibiltzeko ibilbideak erakutsiko lizkizuke app-ak. Ibilbide horiek aplikazioa duten beste pertsona batzuek jarritako ibilbideak izango lirateke. Bazkide ez bazara, ezin dituzu ibilbideak ikusi, baina beste pertsonekin kontaktuan jartzen jarrai dezakezu.

App-z gain lehen esan bezala, Bilbon lokal bat zabaltzea pentsatuta dugu, eta bertan bizikletak erreparatu, gorde, eta osagarriak salduko ditugu. Gainera lokal hori App-ren funtzionamendua kontrolatzeko eta gure batzarrak antolatzeke erabiliko dugu, hau da, xede gisa ere erabiliko dugu.

Bizikletak gorde ahal ditugula esaten dugunean, honako hau esan nahi dugu: adb.; pertsona batek bizikleta bat badu eta denboraldi batez (adibidez, neguan) bere etxean gordetzeko lekurik ez badu, bertan utzi dezake eta denboraren arabera prezioa desberdina izango litzateke.



- Eguna: 2€
- Astea: 8€
- Hilabetea: 20€

